

KONTRATAZIORAKO BARNE
JARRAIBIDEAK
ARABA GARAPEN AGENTZIA
S.A.RENAK

HITZAURREA

ARABA GARAPEN AGENTZIA, SA sozietate anonimoa da; beraren kapitalaren % 100 Arabako Foru Aldundiarena da.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen onarpenak lege esparru berria ezarri du Agentziaren kontratazioetarako.

30/2007 Legeko 175.b) artikulua arabera, herri administrazio ez diren sektore publikoko erakundeetako organo eskudunek kontratazio prozeduretan nahitaez aplikatu beharreko jarraibideak onartu behar dituzte ondoko xede hauek bermatzeko: prozeduretan publikotasunaren, lehiaren, gardentasunaren, konfidentzialtasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak betetzea eta kontratua eskaintza ekonomiko hoberena aurkezten duenari esleitzea.

Hori dela eta, jarraibide hauek ezarri dira ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN kontratazioetako barne prozeduretarako.

Jarraibide hauen xedea ARABA GARAPEN AGENTZIA, Saren kontratazioetako barne prozedura arautzea da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

2. artikulua.- Mugaketaren esparrua.

Jarraibide hauek erregulazio bateratuari atxiki gabeko kontratazio prozeduretan aplikatuko dira (prozedurok beherago zehaztuko dira).

Jarraibide hauek ondoko kontratuen prozeduretan aplikatu behar dira: 5.150.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra kontratuak, 206.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornikuntza kontratuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen II. eranskineko 1 – 16 kategorietan azaldutako zerbitzu kontratuetatik balioa zenbatetsia 206.000 eurotik beherakoa dutenak, eta eranskin horretako gainerako kategorietako zerbitzu kontratu guztiak, zenbatekoa gorabehera.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 13.2. artikuluan ezarritako kontratuen prozeduretan era aplikatuko dira, haien zenbatekoa gorabehera.

3. artikulua.- Kontratazio jarraibide hauek aplikatuko zaizkien kontratuen definizioak.

1. Obra kontratua.

Obra kontratuen xedea SPKLren I. eranskinean azaldutako lan eta obretako bat egitea da, edo ARABA GARAPEN AGENTZIA, Saren berariazko beharrianak asetzeko behar den obra bat egitea zeinahi bitarteko erabilita. Xedea burutzeaz gainera, kasu batzuetan kontratuaren barruan sar daiteke proiektua idaztea ere.

Hona zer den "obra": eginkizun ekonomiko edo tekniko bat burutzeko ondasun higiezin batean egiten diren eraikuntza edo ingeniari-tza zibileko lanen multzoa.

2. Hornikuntza kontratua

Hornikuntza kontratuen xedea ondasun edo produktu higitzaileak eskuratzeko edo errentatzea da (finantza errentamendua zein errentamendua, erosteko aukerarekin zein halakorik gabe).

Nolanahi ere, ondokoak hornikuntza kontratuak dira:

- Enpresaria, elkarren segidan eta aleko prezio baten arabera, ondasun bat baino gehiago ematera behartzen duten kontratuak, zenbateko osoa kontratua egiteko garaian zehatz-mehatz ezarri gabe, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN beharrezkoak asetzeko egin beharreko emateen arabera izango baita.
- Telekomunikazioetako edo informazioaren tratamendurako ekipak eta sistemak, eta beraien gailuak eta programak eskuratzeko edo errentatzeko kontratuak, eta programa horiek erabiltzeko eskubideak lagatzeko kontratuak.
- Fabrikazio kontratuak; hauen arabera hornitzaileak eman beharreko gauzak ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK ezarritakoari lotuta egin behar dira, eta baliteke material guztiak edo batzuk berak jartzea.

3. Zerbitzu kontratua

Zerbitzu kontratuen xedea jarduera bat egitea edo ez obra ez hornikuntza ez den emaitza bat lortzea da, SPKLren II. eranskinean azaldutako kategoriekin bat etorriz.

Halaber, zerbitzu kontratutzat hartzen dira neurritan sortutako ordenagailu programak eskuratzeko kontratuak.

4. artikulua.- Kontratazioaren printzipio orokorrak.

Jarraibide hauek aplikatu dakizkieken kontratuak SPKLren 1. artikuluan jasotako printzipioek arautuko dituzte eta horien esleipena, nolanahi ere, publikitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta bazterkeriarik gabeko printzipioen pean geratuko da, SPKLren 175. artikuluekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan adierazitako printzipioak betetzen direla bermatze aldera, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK

izapidetzen dituen kontratazio prozeduretan, kontratazioko organoen jarduera, jarraibide hauen arabera, edozelan ere, aipatutako printzipioen asebetetzera bideratuta dago.

Printzipio horiek betetzat emango dira jarraibide hauen hurrengo ataletan ezarritako arauak betez. Horiek aplikatu eta interpretatzeko jarduteko gidalerro hauek hartuko dira kontuan:

a) Publizitate printzipioa bete dela ulertuko da, balizko lizitazaile ororen onuran, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAKo kontratuaren informazioa ematen duten eta merkatua konpetentziari irekitzeko bidea ematen duten zabaltzeko edo hedatzeko bitarteko egokiak eta nahikoa eskuragarri daudenak aplikatzen direnean.

b) Gardentasun printzipioa betetzat joko da balizko lizitazaile orok lizitazioan parte hartzeko interesa duela adierazteko bidea ematen duen informazio egokia zabaltzen edo hedatzen denean, kasuan kasuko kontratua esleitu baino lehen. Orobat, printzipio horrek parte hartzaile guztiek esleitu nahi den kontratuari aplikatzen dakizkioken arauak alde aurretik ezagutu ditzaketela dakar, baita aipatutako arauak modu berean erakunde guztiei aplikatzen zaizkiela ziur jakitea ere.

c) Jarraibide hauetan ezarritakoaren arabera, balizko lizitazaileen sarbidea eta parte hartzea erraztuko duten beharrezko neurriak hartuko dira kontratua ekonomikoki onena den eskaintzari esleitze aldera.

d) Konfidentziasun printzipioa errespetatuko da ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK bere gain hartzen duelako enpresariak isilpekotzat jo duten emandako informazioa ez zabaltzeko betebeharra, betiere horretarako justifikatutako arrazoiak baldin badaude eta, bereziki, eskaintzen sekretu teknikoak edo merkataritza sekretuak eta isilpeko alderdiak. Era berean, printzipio horren aplikazioak eskatzen du kontratistek izan dezaketen informazioaren isilpeko izaera errespetatu behar izatea, agirietan edo kontratuan izaera hori eman zaion kontratua burutzerakoan, edo bere izaera dela-eta horrelakotzat jo behar izatea.

e) Berdintasun eta bereizkeriarik gabeko printzipioak bermatzeko, prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzeko duten beharrezko neurriak hartuko dira. Neurri horiek, gutxienez, honako hauek hartuko dituzte barne:

i) Kontratuen xedea modu ez baztertzailan idatziko da beti, fabrikazio, jatorri edo produktu jakinei erreferentzia egin gabe, marka, patentea, mota, jatorria edo produkzio jakina aipatu gabe. Halakorik emateko egoki justifikatu beharko da eta aipu "edo baliokide" batekin lagundu beharko zaio.

ii) Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako balizko lizitatzailerekiko bazterketa zuzena edo zeharkakoa dakarren baldintzarik ez da ezarriko.

iii) Hautagaiei tituluak, ziurtagiriak edo justifikatzeko beste edozein agiri aurkezteko eskatuz gero, beste estatu kideetatik datozen agiriak tituluak, ziurtagiriak eta beste diplomak elkar onartzeko printzipioak dioenarekin bat onartuko dira.

iiii) Interesa agertzeko edo eskaintzaren bat aurkezteko emandako epeak egokiak izango dira beste estatu kideetako enpresek ebaluazio egokia egin eta eskaintza aurkeztu ahal dezaten.

iiiiii) Esleipen prozeduran hornitzaile batek baino gehiagok parte hartzen duten kontratuetan, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK horiek guztiek kontratuari buruzko datu berak eta baldintza berberekin dituztela bermatzeko du.

5. artikulua.- Kontratazio organoak eta eskumenak.

Kasu bakoitzeko kontratazio organoa ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN Estatutuetan eta aplikatzen zaizkion gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera zehaztuko da. Hori gorabehera, beste organo batzuei ere eman dakizkieke ahalordetzeak eta eskuordetzeak.

6. artikulua.- Eska daitezkeen bermeak.

6.1.- Kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta, kontratazio organoak bermea jartzeko eskatu ahal izango die lizitatuzaileei edo hautagaiei eskaintzei esleipen egunera arte eutsiko diotela ziurtatzeko. Gainera, esleipendunari beste berme bat eskatuko dio prestazioaren burutzapen egokia ziurtatzeko.

Bermeen zenbatekoak kontratuaren inguruabarren eta ezaugarrien arabera ezarriko dira.

Eskatzen diren bermeak SPKLko 84. artikuluan azaltzen den bezala aurkez daitezke.

6.2.- 30/2007 Legean ezarri da hautazkoa dela behin-behineko bermea eskatzea. Bada, oro har, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK ez du halakorik eskatuko deitzen dituen lehiaketetan, kontratu jakin batzuetan, inguruabar bereziak direla eta, komenigarritzat jotzen denean izan ezik.

7. artikulua.- Kontratataren gaitasuna.

ARABA GARAPEN AGENTZIA, SArekin honako hauek bakarrik kontratatu ahal izango dute: pertsona fisikoek edo juridikoek, espainolek edo atzerritarrek, jarduteko erabateko gaitasuna dutenek, kontratatuzko debekuren batean sartuta ez daudenek eta ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala frogatzen dituztenek.

Kasu bakoitzean eskatuko diren gaitasunaren eta kaudimenaren gutxieneko baldintzak kontratuaren xedeari lotuta egon beharko dute eta horrekiko proportzionalak izan beharko dute.

Sektore publikoko erakunde guztiei aplikatu ahal zaizkien SPKLko xedapenak gorabehera, kontratatuzko kaudimena eta lanbide gaitasuna edo gaitasun teknikoa frogatzeko modua lizitazioan finkatuko da kontratuaren inguruabarren eta ezaugarrien arabera. Kontratazio organoak bidezkoztat joz gero, SPKLko 64 - 68 bitarteko artikuluetan ezarritakoa aplikatu ahal izango da.

Orobat, SPKLko 54.5. artikuluekin bat etorri, kontratuaren inguruabarren eta ezaugarrien arabera, enpresariaren gaitasuna sailkapenaren bitartez frogatzeko eskatu ahal izango da.

Enpresariaren kaudimenaren eta gaitasunaren inguruko gutxieneko betekizunak eta haiek frogatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa lizitazioaren iragarkian adieraziko dira eta kontratuaren agirian zehaztuko dira, baldin eta jarraibide hauen arabera eskatu behar badira.

8. artikulua.- Kontratatzeko prozedurak.

I.- Arau orokorrak.

I.1.- ARABA GARAPEN AGENTZIA, SA publikotasunaren, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioei lotuko zaie bere kontratazio prozeduretan, eta eskaintza ekonomiko hoberena aurkezten duenari esleituko dio kontratua. Gainera, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko xedapen aplikagarri guztiak beteko ditu.

I.2.- ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK baldintza agirietan kaudimenaz eta gaitasunaz ezartzen diren betekizunak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak kontratatu ahal izango ditu. Kontratuaren zenbatekoa dela eta baldintza agiririk prestatu behar ez bada, eskaintzen eskaeran kontratuaren xedearan arabera beharrezkotzat jotzen diren betekizun guztiak finkatu ahal izango dira.

I.3.- ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK, 30/2007 Legearen esparruan, ondoko prozeduren artean hautatu ahal izango du kontratazioetan: prozedura irekia, prozedura murriztua edo prozedura negoziatua (publizitatearekin edo publizitaterik gabe).

I.4.- Lehiaketa elkarrizketaren prozedura eta proiektu lehiaketa 30/2007 Legean ezarrita dagoen bezala erabili ahal izango dira administrazio kontratuatarako, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN izaera juridiko berezira egokituta.

I.5.- 50.000 €-tik beherako balioa zenbatetsi zaien obra kontratuak eta 18.000 €-tik beherako balioa zenbatetsi zaien bestelako kontratuak zuzenean esleitu ahal izango zaizkie

jarduteko gaitasuna duten enpresariei, kontratuaren xedea burutzeko behar den lanbide gaitasuna edukiz gero.

I.6.- Prozedura irekietan zeinahi enpresarik aurkeztu ahal izango du proposamena. Aldiz, prozedura murriztuan erakunde kontratatzaileak eskaintza eskaera baten bitartez hautatzen dituen enpresariak soilik aurkez dezakete proposamena. Prozedura negoziatuan, kontratua erakunde kontratatzaileak hautatzen duen enpresariari esleituko zaio, kontratuaren zer-nolakoak enpresari batekin edo gehiagorekin kontsultatu eta negoziatu ondoren.

I.7.- Iraupen luzeko hornikuntzetan prezioa urtean zehar aldatzen bada, organo eskudunak kontrataziorako oinarrizko arauak onartuko ditu, eta Zuzendari Nagusiari ahalmena emango zaio haien garatzeko eta esleipen puntualak egiteko.

I.8.- 30/2007 Legean ezarri bezala, arau hauetan finkatutako kopuruetan ez da sartu Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) dagokion zenbatekoa.

I.9.- ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN kontratuen iraupena ezartzeko kontuan eduki behar da nolakoak diren prestazioak eta finantzaketa, bai eta prestazioak aldizka lehiaketara atera behar diren ere.

I.10.- Kontratuan luzapen bat edo batzuk ezar daitezke, baina horretarako ezinbestekoa da haren ezaugarriak ez aldatzea indarrean dagoen aldi osoan eta esleipenerako lehia haren gehieneko iraupena (luzapenak barne) kontuan hartuta egitea. Luzapenak kontratazio organoak erabakiko ditu eta nahitaezkoak izango dira esleipendunarentzat, kontratuan berariaz besterik ezarri ezean. Ez da bidezkoa alderdiak isilbidezko adostasunera heltzea.

II.- Kontratazio prozedurak.

II.1.- PROZEDURA OROKORRA: kontratu hauetan erabiliko da:

- Hornikuntzak: 50.000 € - 206.000 €
- Zerbitzuak: 50.000 € - 206.000 €

- Obrak: 50.000 € - 5.150.000 €

II.1.1. Kontratazio espedientea.

ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK Kontrataziorako Baldintza Orokorren Agiria prestatuko du eta ondokoak zehaztuko ditu bertan:

- Lizitatzeko betekizunak (gaitasun teknikoa eta kaudimena).
- ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK kontratua esleitzeko egin beharreko izapideak.
- Eskaintzak balioesteko irizpideak.

Gainera, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK Zehaztapen Teknikoen Txostena egingo du eta bertan kontratazioaren xedea eta eskatzen diren betekizun teknikoak finkatuko ditu.

Lizitazioaren gehieneko aurrekontua kontratazioaren gehieneko zenbatekoa izango da. Eskaintza guztiek gainditzen badute lizitazioaren gehieneko aurrekontua, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK lizitazio prozedura hutsik geratu dela adieraziko du.

II.1.2. Lizitazioaren publizitatea.

ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK Kontratatzailearen Profilean (ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN web orria: XXXXXXXX) argitaratuko du lizitazioaren inguruko informazio guztia, baita agiriak ere, lizitazioan interesatuta dauden guztiek eskaintza aurkeztu ahal izan dezaten, jarraibide hauetako 4. artikuluan ezarri den bezala.

II.1.3. Proposamenak aurkezteko epealdia.

ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK iragarki baten bidez edo lizitazioaren agirian bertan lizitatzailleek proposamena zein epealditan aurkeztu behar duten zehaztuko du. Betiere, epealdiak egokiak izango dira lizitatzaille guztiek, are Europar Batasuneko beste estatu batzuetako enpresek ere, lizitazioa behar bezala ebaluatu eta eskaintza aurkeztu ahal izateko.

II.1.4. Proposamenak aztertzea eta balioestea.

Proposamenak aurkezteko epealdia amaitutakoan, lizitazioa sustatu duen arloak eskaintzak aztertu eta antolatuko ditu, eta prezioa ez beste irizpideak aplikatuta balioetsiko ditu.

II.1.5. Esleipen proposamena.

Kontratazio Mahaiak edo ARABA GARAPEN AGENTZIA, Saren organo egokiak, kasuan kasukoak, kontratua bere ustez hoberena den eskaintzari esleitzeko proposatuko du, edo bestela informazio gehiago edo argibideak eskatu ahal izango ditu.

Kontratazio Organoak proposatutako enpresari esleitu ahal izango dio kontratua, edo bestela beste lizitatzaileretako bati, baldin eta uste badu haren eskaintza ekonomiaren aldetik hobea dela (honetan arrazoiak azaldu beharko ditu).

II.1.6. Esleipenaren jakinarazpena.

Lizitazio prozedura ebatzi ondoren ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK esleipenaren berri emango die esleipendunari eta prozeduran parte hartu duten gainerako lizitatzaileriei. Gainera, kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa eskatuko dio esleipendunari. Lizitazioaren emaitza Kontratatzaileraren Profilean argitaratuko da (ARABA GARAPEN AGENTZIA, Saren web orria: XXXXXXX): esleipendunaren izena eta esleipenaren zenb atekoa azalduko dira.

II.2.- PROZEDURA ERRAZTUA: kontratu hauetan erabiliko da:

a) Zenbatetsitako balioa 200.000 - 1.000.000 euro bitartekoa duten obra kontratuak eta zenbatetsitako balioa 60.000 - 100.000 euro bitartekoa duten hornikuntza kontratuak eta zerbitzu kontratuak.

b) Zenbatetsitako balioa 50.000 - 200.000 euro bitartekoa duten obra kontratuak eta zenbatetsitako balioa 18.000 - 60.000 euro bitartekoa duten hornikuntza kontratuak eta zerbitzu kontratuak.

c) Zenbatetsitako balioa 50.000 eurotik beherakoa duten obra kontratuak eta zenbatetsitako balioa 18.000 eurotik beherakoa duten hornikuntza kontratuak eta zerbitzu kontratuak.

II.2.a) Prozedura erraztua a mailako kontratueterako.

Prozedura orokorrean bezala, Kontrataziorako Baldintza Orokorren Agiria eta Zehaztapen Teknikoen Txostena prestatu behar dira, eta gutxienez hiru eskaintza eskatu behar dira. Gutxieneko eskaintza kopuru horretara heldu ezin bada, espedientean azaldu behar da.

Nolanahi ere, Kontratatzailearen Profilean ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN telefonoa eta egoitza agertuko dira, lizitazioan parte hartu nahi dutenek arribideko a) mailako kontratua esleitzeko prozedura erraztuari buruzko informazioa eska dezaten.

Esleipena egindakoan kontratua idatziko da eta eskaintza ezetsi zaien lizitatzaleei jakinaraziko zaie.

II.2.b) Prozedura erraztua b mailako kontratueterako.

Prozedura honetan ez da beharrezkoa deialdiaren publizitatea egitea.

Prozedura orokorrean bezala, Kontrataziorako Baldintza Orokorren Agiria eta Zehaztapen Teknikoen Txostena prestatu behar dira, eta gutxienez hiru eskaintza eskatu behar dira. Gutxieneko eskaintza kopuru horretara heldu ezin bada, espedientean azaldu behar da.

Nolanahi ere, Kontratatzailearen Profilean ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAREN telefonoa eta egoitza agertuko dira, lizitazioan parte hartu nahi dutenek arribideko b) mailako kontratua esleitzeko prozedura erraztuari buruzko informazioa eska dezaten.

Esleipena egindakoan kontratua idatziko da eta eskaintza ezetsi zaien lizitatzaleei jakinaraziko zaie.

II.2.c) Prozedura erraztua c mailako kontratueterako.

c) mailako kontratuak zuzenean esleitu ahal izango zaizkie jarduteko gaitasuna duten enpresariei, kontratuaren xedea burutzeko behar den lanbide gaitasuna edukiz gero. Aski izango da gutun baten bidez eskaintza eskatzea enpresari bakar bati. Prozedura orokorrean ez bezala, ez dago Kontrataziorako Baldintza Orokorren Agiria eta Zehaztapen Teknikoen Txostena prestatu beharrik.

Espedientea izapidetzeko ondokoak soilik eskatuko dira: gastua onartzea, aurrekontua, eskaera eta faktura.

III.- Beste kontratazio prozedura batzuk.

Lehiaketa elkarrizketa.

SPKLko 164. artikuluan ezarritako kasuetan lehiaketa elkarrizketa baliatu ahal izango da kontratua esleitzeko. Hala eginez gero, SPKLko 163 - 167 bitarteko kontratuetan xedatutakoa aplikatuko da.

IV.- Akordio irekiak hornitzaileekin.

Kontratazioa arrazionalizatzeko asmoarekin ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK hornitzaileekin akordio irekia sinatzeko prozedura abiarazi ahal izango du, SPKLko 183 - 185 bitarteko artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, aldi jakin batean (4 urte gehienez) esleitu nahi diren kontratuen baldintzak ezartzeko. Sistema honen barruan, kontratu kontrataziorako barne jarraibide hauetan ezarritakoaren arabera esleituko da.

Aurrean ezarritako guztia bete behar badu ere, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK SKPLko 184.3. artikuluan ezarritakoez beste bitarteko batzuk erabili ahal izango ditu idatz zati honetan ezarritako sistema garatzeko eta beraz baliatuta kontratuak esleitzeko.

Hornitzaileekin akordio irekia sinatzeko prozedura erabili ahal izango da xedea ondasunak eskuratzea edo zerbitzuak egitea den kontratuetan, baldin eta hornitzaile asko badaude eta prezioa hainbat eragileren arabera bada (ad.: mikroinformatikako ekipok erostea, kontsumigarriak, etab.).

Honelako akordio irekiak inolaz ere ezin dira egin gehiegikeriaz, ez eta lehia eragozten, murrizten edo faltsutzen dela ere.

Hornitzaileekin akordio irekia sinatzeko deialdia Kontratzailearen Profilean argitaratu behar da, eta kasu batzuetan baita beste hedapenbide batzuetan ere.

Lehen faseko izapideak prozedura orokorrekoak berak izango dira. Kontratuziorako Baldintza Orokorren Agirian hornitzaileekin akordio irekia sinatzeko prozeduraz baliatuta esleituko diren kontratuak esleitzeko arauak ezarriko dira.

ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK mota honetako hainbat akordio sustatu ahal izango ditu, izaeraren arabera.

V.- Kontratuen formalizazioa.

Bidezko agirian jasota egon ezean, ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK jarraibide hauei helduta sinatzen dituen kontratuetan ondokoak agertu behar dira nahitaez:

- a) Alderdiak identifikatzea.
- b) Kontratua izenpetzeko sinatzaileek duten ahalmena egiaztatzea.
- c) Kontratuaren xedea definitzea.
- d) Kontratuari aplikatzen zaion legeriari buruzko aipamena.
- e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda. Kontratuan hala adierazten bada, zerrenda hierarkikoki ordenatu ahal izango da, alderdiek adostutako lehentasun ordenaren arabera. Eta kasu horretan, eta adierazpen akatsik egon ez bada, adostutako ordena prebalentzia zehazteko erabiliko da, agirien arteko kontraesanak baldin badaude.
- f) Egiatzko prezioa edo hori zehazteko modua.
- g) Kontratuaren iraupena edo obraren hasiera eta bukaerako estimatutako datak, eta ezarriz gero, luzapena edo luzapenenak ere.
- h) Zerbitzuak jasotzeko, emateko eta onartzeko baldintzak.
- i) Ordaintzeko baldintzak.
- j) Akordioa suntziaraziko duten inguruabarrak.
- k) Kontratistari ezartzen zaion konfidentzialtasun betebeharraren luzapen objektiboa eta denborazkoa.

Oro har, kontratua kontratista hautatu eta egutegiko hamar egun pasatu baino lehen formalizatuko da, lizitazio agirian edo eskaintzan bestelako epealdia ezarri ez bada.

Kontratuaren formalizazioaren bidez ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAK harekin ados dagoela adieraziko du, eta horrela kontratua burutuko da.

9. artikulua.- Indarrean jartzea.

Jarraibide hauek ARABA GARAPEN AGENTZIA, SAKo Administrazio Kontseiluak onartu ondoren jarriko dira indarrean eta ordutik aurrera hasten diren kontratazio prozeduretan aplikatuko dira.

10. artikulua.- Aldaketak.

Jarraibide hauek noiznahi alda daitezke Administrazio Kontseiluaren erabaki baten bidez, eta modu berean gehikuntzak egin daitezke eta zalantzak argitu daitezke.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko irailaren 30a.